



GAZTE- EKIN BIZKAIA EGITEN DBH 4.



<https://gazteak.bizkaia.eus>



ERABAKIAK HARTZEA 1

GAITASUNA

Erabakiak hartzea.

LOTUTAKO GAITASUNAK

Sormena, ekimena, espiritu ekintzailea, arazo ebazpena.

GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Egoera edo arazo desberdinak ebazteko aukeren edo moduen artean hautaketa egiteko prozesua bezala definitu daiteke.

HELBURUAK

- Arazoak ulertzen eta laburtzen jakitea.
- Proposatutako alternatibak aztertzea erabakirik onena hartzek.
- Erabaki egokiak hautatzeko prozesu egokiak aplikatzea.
- Zentzu kritikoarekin lan egitea.
- Hautatutako aukeren ondorioak baloratzea.




KURTSOA

DBH 4.

GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hau lortzeko, beharrezkoa izango da erabakiak hartu aurretik alternatibak identifikatzea, ahalik eta informazio gehien izatea, proposatutako erabaki bakoitzaren abantailak eta desabantailak ebaluatzea eta hautatutako erabakia behar bezala arrazoitzea. Garrantzitsua izango da ere erabaki zailak hartzeari aurre egitea eta hausnarketa-prozesuaren ondoren hartutako erabakian segurtasunez jardutea.

Gaitasun honi dagokionez, funtsezkoa da, halaber, erabakiak hartzeko orduan ematen den akatsa eta batzuetan ikasleak frustraziora eraman dezakeen porrota bereiztea.



ERABAKIAK HARTZEA 1

GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

DBH 4. mailan erabakiak hartzen

DESKRIBAPENA

Erabakiak hartzeko planteatzen den dinamika ikasleek ikasturte honetan hartu behar dituzten eta etorkizunean eragin erabakigarria izango duten berehalako erabakiei buruzko hausnarketa da. Helburua gogoeta eragitea da, informazioa pilatuz eta erabakiak baloratzuz.

10 galderaz osatutako galdera-sorta da (gehiago erants daitezke), eta ikasleei emango zaie, banaka irakur dezaten eta idatziz osa dezaten. Gero, klasean emandako azalpena baloratuko da, eta erantzunen arabera, aukera desberdinak proposatu ahalko dira etorkizunerako, aukera bakoitzaren abantailak eta desabantailak kontuan hartuz.

Zeintzuk dira gehien egitea gustatzen zaizkizun gauzak?

Zein egoeratan sentitzen zara gusturago?

Zer trebetasun dituzu?

Zer gauzengatik zoriondu zaituzte zure irakasleek, senitartekoez, lagunek?

Zein irakasgaitan nabarmentzen zara?

Zer da errazagoa ikastea zuretzat?

Ba al dago gairik, zaletasunik, etab. zure kabuz lantzea gustatzen zaizuna?

Zer gustatuko litzaizuke ikastea?

Zertan gustatuko litzaizuke lan egitea?

Zer beharko duzu helburu horiek lortzeko?

DENBORA-ESTIMAZIOA



Ordu bat.

BEHARREZKO MATERIALA

Orriak.

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Erantzun-maila, emandako kopurua baloratzuz.
- Erantzun-maila, erantzunen arrazoibidea baloratzuz.
- Galdera berari beste aukera batzuk ematea.
- Banakako parte-hartze maila.
- Orientatzailearen ikuskapena.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.



ERABAKIAK HARTZEA 2

GAITASUNA

Erabakiak hartzea.

LOTUTAKO GAITASUNAK

Sormena, ekimena, espiritu ekintzailea, arazo ebazpena.

GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Egoera edo arazo desberdinak ebazteko aukeren edo moduen artean hautaketa egiteko prozesua bezala definitu daiteke.

HELBURUAK

- Arazoak ulertzen eta laburtzen jakitea.
- Proposatutako alternatibak aztertzea erabakirik onena hartzek.
- Erabaki egokiak hautatzeko prozesu egokiak aplikatzea.
- Zentzu kritikoarekin lan egitea.
- Hautatutako aukeren ondorioak baloratzea.




KURTSOA

DBH 4.

GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hau lortzeko, beharrezkoa izango da erabakiak hartu aurretik alternatibak identifikatzea, ahalik eta informazio gehien izatea, proposatutako erabaki bakoitzaren abantailak eta desabantailak ebaluatzea eta hautatutako erabakia behar bezala arrazoitzea. Garrantzitsua izango da ere erabaki zailak hartzeari aurre egitea eta hausnarketa-prozesuaren ondoren hartutako erabakian segurtasunez jardutea.

Gaitasun honi dagokionez, funtsezkoa da, halaber, erabakiak hartzeko orduan ematen den akatsa eta batzuetan ikasleak frustraziora eraman dezakeen porrota bereiztea.



ERABAKIAK HARTZEA 2

GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

Erabakiak hartu bizirauteko

DESKRIBAPENA

Kasu honetan proposatzen den erabakiak hartzeko dinamika 4-5 pertsonako taldeetan egiten da, eta helburua, taldean eraginkortasunez lan egiteaz gain, erabaki arrazoituak hartzea da, aukerak baloratuz eta hartutako erabakien ondorioak aztertuz. Dinamikaren azken atalak talde bakoitzaren erabakiak eta arrazoibideak azaltzeko balioko du.

Taldea uharte bakarti batera doa itsasontzi batean. Ontzian 30 elementu daude, eta horietatik 25 kendu beharko dituzte uhartera iristeko; 5 besterik ez dituzte izango bizirik irauteko.

Eskorga	Armairuak
Futbol baloiak	Alkohol botilak
Gitarra bat	Kotxe bat
Higiene pertsonalerako elementuak	Hamaka bat
Tablet bat 20 filmekin	Arrantza-ekipoa
Zakuak	Txakur bat
Behia	Pospoloak
Errifle bat eta 100 bala	Zaldi bat
Argazkiak ateratzeko materiala	Hainbat motatako haziak
Sendagaiak	Kontserba-latak
Eguzkitik babesteko kremak	Lagun maiteen argazkiak
Zezen bat	Idazteko paper-orriak
Oilok	Mahai-jokoak
Zorroko sopak	Bi kanpin-denda
Eleberriak	Ohe handia

DENBORA-ESTIMAZIOA

Ordu bat.

BEHARREZKO MATERIALA

Orriak.

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Erantzunak, hauen arrazoitzea baloratuz.
- Aukera desberdinak ematea.
- Banakako parte-hartzearen eta talde-lanaren maila.
- Orientatzailearen ikuskapena.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.

